# Bestelako Xedapenak

**JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA**

**606**

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 11koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Berdintasunaren Aldeko 2008ko Emakunde Saria nori eman ebazten duena.

2008ko irailaren 18ko Ebazpenaren bitartez, Berdintasunaren Aldeko 2008ko Emakunde Sariaren deialdia egin zen.

2008ko urriaren 1eko Ebazpenaren bidez izendatutako epaimahaiak egindako proposamena kontuan hartuta, ondokoa

EBATZI DUT:

***Lehenengoa***.– Berdintasunaren aldeko 2008ko Emakunde saria ematea La Brakamonte elkarte soziokulturalari, alegia, Bizkaiko Emakumeen Asanbladari, erakunde honen ibilbide luzeagatik. Izan ere, hogeita hamar urte baino gehiagoz, 1976. urtean sortu zenez geroztik, gogor lan egin du emakume eta gizonen berdintasunaren alde, emakumeentzako askatasun eta justiziarako bideak zabalduz.

Epaimahaiak mugimendu feminista honen ibilbide osoa hartu du kontuan. Asanbladaren helburuak dira emakume eta gizonek eskubide berberak izatea bizitzaren alor guztietan, hala nola hezkuntzan, osasunean, lanean, eta partehartze sozial eta politikoan. Horrela, kontzientziatzearen alorrean Bizkaiko Emakumeen Asanbladak hitzaldiak, ikastaroak eta tailerrak antolatu ditu emakumeentzat, pentsamendu feministaren inguruko hausnarketa, kontzientziaraztea, sentsibilizazioa eta eztabaida piztu nahian. Erreibindikazioaren alorrean ere lan handia egin du, dibortzioaren eskubidearen alde, sexismorik gabeko hezkuntza eta osasungintzaren alde eta abortuaren eskubidearen alde, besteak beste. Gizarte-laguntzaren alorrean ere nabarmena da Asanbladak egindako lana. Emakumeei laguntza juridikoa eskaini die banaketa, dibortzio, eta abortuarekin zerikusia duten prozesu judizialetan. Honekin batera, familia-plangintzarako taldeak sortu ditu. Biolentziaren biktima izan diren emakumeei laguntza eman die eta haientzako zerbitzuak proposatu ditu. Asanbladak memoria historikoa babesten ere ahaleginak egin ditu. Izan ere, 1982. urtean Emakumeen Dokumentazio Zentroa sortu zuen, Euskal Herriko mugimendu feministaren inguruko ekintza eta ideiak gorde eta artxibatzeko.

***Bigarrena***.– Administrazio-bidea amaitutzat ematen duen ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da erakundearen beraren aurrean, eta, horretarako, hilabeteko epea izango da,

# Otras Disposiciones

**PRESIDENCIA DEL GOBIERNO**

**606**

RESOLUCIÓN de 11 de diciembre de 2008, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de La Mujer, por la que se resuelve la concesión del Premio Emakunde a la Igualdad para el año 2008.

Mediante Resolución de 18 de septiembre de 2008 se convocó el Premio Emakunde a la Igualdad para el año 2008.

A la vista de la propuesta de concesión realizada por el jurado designado al efecto mediante Resolución de 1 de octubre de 2008,

RESUELVO:

***Primero***.– Conceder a la asociación socio-cultural La Brakamonte, conocida como Asamblea de Mujeres de Bizkaia, el Premio Emakunde a la Igualdad para el año 2008, por su larga trayectoria de más de treinta años luchando por la igualdad de mujeres y hombres y trabajando por ensanchar los caminos de libertad y justicia para las mujeres desde su creación en 1976.

El jurado ha valorado el conjunto de la trayectoria de este movimiento feminista creado para exigir para las mujeres iguales derechos que para los hombres en todos los campos de la vida: educación, salud, trabajo, participación social y política… Así, en el campo de la concienciación, la Asamblea de Mujeres de Bizkaia ha organizado conferencias, cursos y talleres con el fin de reflexionar, concienciar, sensibilizar y debatir en torno al pensamiento feminista. En el campo de la reivindicación, ha luchado por el derecho al divorcio, a una educación y a una sanidad no sexistas, así como por el derecho al aborto y a decidir sobre el propio cuerpo. Ha trabajado también en el campo de la asistencia social. Ha ofrecido asesoramiento jurídico en separaciones, divorcios o en causas judiciales por aborto. Ha impulsado grupos de planificación familiar. Ha ofrecido apoyo a las mujeres víctimas de violencia y ha propuesto servicios para su atención. Su trabajo abarca también la salvaguarda de la memoria histórica, con la creación en 1982 del Centro de Documentación de Mujeres, un proyecto de un grupo de trabajo de la Asamblea preocupado por la necesidad de archivar y recoger documentación sobre las ideas y actividades del movimiento feminista del País Vasco.

***Segundo***.– Contra la presente Resolución que agota la vía administrativa podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el mismo Órgano en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de su pu-

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 11.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
IZASKUN MOYUA PINILLOS.

blicación en el Boletín Oficial del País Vasco; o bien, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 2008.

La Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer,
IZASKUN MOYUA PINILLOS.